

Balio-proposamena

Robotikako ikasle talde txiki bat gara, eta gure proiektua Gasteizko Gorbeialdeko Zentruan egindako bisita inspiratu zuen, premia bereziak dituzten pertsonak autonomoago izaten laguntzeko asmoz.

Duela hilabete batzuk egindako bisita hartan, garapen-erronka desberdinak dituzten pertsonak ezagutu genituen. Haien eta irakasleekin izandako elkarrizketek argi utzi ziguten: laguntza txiki batek, eguneroko erabaki edo komunikazio zail batek, asko alda lezakeela haien independentzia.

Horixe da Lagunbot proiektuaren bihotza: laguntza teknologiko sinplea, pertsonalizatua eta errespetuz betea eskaintzea, beren kabuz gauzak egiteko konfiantza eta independentzia hori sentiarazteko.



Lagunbot beso robotiko erraz eta irisgarria da, botoi handi bakar batekin kontrolatzen dena. Horrek erabiltzaileari askatasun eta autonomia handia ematen dio, nahiz eta mugikortasun arazoak izan. Aurrez programatutako diseinuak marrazteko gai da, eta horrela pertsona batek bere kabuz artea sortzeko aukera du.

Balio-proposamenaren muina da autonomia handiagoa lortzea, ongizate emozionala hobetzea eta frustrazioa murriztea. Gainera, kausa-efektuaren ulermena lantzen da eta terapia prozesua jolas bihurtzen da, esperientzia atseginagoa bihurtuz. Imaginatu garun-paralisia duen ume bat, lehen aldiz marrazteko gai dena beso robotikoari esker: hori da gure benetako balioa. Horregatik, gure slogana da: **“Elkarrekin, libreago – Juntos, más libres”**.





BIDEOA:

[CEE Gorbeialde HBI](#)



Gure proposamenaren izena euskaratik datozen hitzekin osatuta dago. “**Lagun**” hitzak, “Amigo” gazteleraz, elkartasuna eta konfidantza erakusten du, eta “**-bot**” atzizkiak, berriz, gure proposamenarekin eskaintzen dugun teknologiaren adarra adierazten du. Modu horretan, lehenengo “L” letra beso robotiko bat bihurtu dugu, bihotz bat helduz, eskaintzen duen keinuarekin. Ondorioz, teknologia eta gizakiaren harreman gertua erabiltzen dugu, biak elkarrekin helburu esanguratsuak lor daitezkelako. Kolore urdina inkontzienteki teknologiarekin eta kalitatearekin lotzen dugun kolorea da. Baita lasaitasuna eta konpromesua bermatzen du.

Beraz, Lagunbot-eko beso robot asistenzialak autonomia, sormena eta terapia digitala uztartzen ditu. Gamifikazioa edo jolasa izango da erdigunea, erabiltzailearentzat esperientzia dibertigarri eta motibatzaile bihurtuz. Ez da soilik tresna teknologiko bat: Lagunbot lagun bat da, eguneroko errutinak errazten dituen eta aldi berean sormenari ateak zabaltzen dizkiona.

Gure balio-proposamena hiru ardatz nagusitan oinarritzen da, bezero bakoitzaren beharrak asetzera bideratuta:

- **Autonomia eta Askatasuna – Erabiltzaile Finala:** Botoi handi bakarrarekin kontrolatzen den diseinu sinplifikatuari esker, mugikortasun arazo handiak dituzten pertsonak ere artea bere kabuz sortzeko aukera dute lehen aldiz. Honek ongizate emozionala hobetzen du eta frustrazioa nabarmen murrizten du. Autonomia hau ez da soilik teknikoa, baizik eta bizitzaren kalitatean eragin zuzena duena.





- **Kausa-efektuaren Terapia – Profesionala:** Beso robotikoak mugimendu zehatzak, errepikakorrak eta pertsonalizatuak ahalbidetzen ditu. Horrela, terapia prozesua jolas digital bihurtzen da, erabiltzailearen atxikimendua eta motibazioa handituz. Aldi berean, kausa-efektuaren ulermena lantzen da, eta horrek terapia eraginkorragoa eta dibertigarriagoa bihurtzen du. Profesionalentzat, Lagunbot tresna baliotsua da, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzeko eta aurrerapenak modu zehatzagoan neurtzeko.



- **Irisingarritasuna eta Kostu-eraginkortasuna – Familia eta Zentroak:** Merkaturatuko diren antzeko beste produktu batzuekin alderatuta, Lagunbot merkeagoa eta eskuragarriagoa izango da. Horrek aukera ematen du teknologia aurreratua behar duten guztien eskura jartzeko, bai familientzat, bai birgaitze zentroentzat eta hezkuntza bereziko ikastetxeentzat. Irisingarritasun hau funtsezkoa da, askotan baliabide ekonomiko mugatuak dituzten familiek ere tresna hau erabili ahal izateko.

Azken batean, Lagunbot ez da soilik beso robotiko bat: esperientzia oso bat da, autonomia, sormena eta ongizatea uztartzen dituen. Erabiltzailearentzat askatasun berria da, profesionalentzat terapia eraginkorragoa, eta familientzat tresna praktiko eta fidagarria. Horregatik, gure proiektuaren balio-proposamena argi dago: **teknologia hurbila, erabilgarria eta emozionalki esanguratsua.**

Lagunbot proiektuaren helburua argia da: desgaitasuna duten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzea, autonomia handiagoa eta ongizate fisiko zein emozionala eskainiz. Horregatik, proiektuak bat egiten du hurrengo [Garapen Jasangarriako Helburuekin](#):

3. GJHa osasuna eta ongizateari buruz doa, autonomia eta ongizate mentala sustatzen baititu. Baita 9. GJHa ere, industria eta berrikuntzaren inguruan oinarritzen

da, teknologia irisgarria eta gizartean eragin adierazgarria sortzen duen berrikuntza eskaintzen dugulako. 10. GJHak ere bai, desberdintasunen murrizketa lantzen du, inklusioa eta aukeren eskuragarritasuna bultzatzen ditugulako, gizartean dauden oztopoak pixkanaka gaindituz.

